

PILOTA JOKOAREN JATORRIAK.—Gaur egun ditugun periodista merkeak maiz ari zaizkigu gai honi buruz, betiko arinkeriaz, inundiran astakeriarik handienak esanez, eta oraindik denbora asko ez dala irakurria dugu pilota jokoak Ameriketatik ekarria dala ere. Baina, danok dakigunez, pilota hain da biribila, hain neurri askotakoa, erarik ugarienetan jokatuaz ezagutu da lehengo mendeetatik. Eta Egipto-ko eta Grezia-ko irudietan azaltzen zaizkigunak oso era desberdinak dire gure herrian ezagutu ditugunetatik. Inkak eta Maiak ezagutu zituzten erak ere, irudietatik begiratu behar ba gendu, hauetan ere beste era batzuk aurkituko ditugu. Eta elkarri konparatuaz hasiko ba gina, gaurko Euskal Herrikoa, Induetako Hockey dalakoarekin konparatzea bezala izango litzake. Biak pilota jokoak, baina elkarrekin zer ikusirik gabekoak. Denbora guztietan izan du herri bakoitzak bere pilota joko era. Nork nori hartu dion eta nondik nora etorri dan bila ibiltea alperrikakoa dugu. Ez bait da agiri zehatzik non noiztik edo non nolako joerak izan diren bereizteko.

Rodney Gallop-ek zionez, Euskal Herrian historia aurretik datorena da pilota jokoak. Eta huntaz ematen du aski argi eta aski agiri. Gallop-ek berak zionez, euskal herri-kanta zaharretan ere oso zabaldua dala pilotaren berria. «Gure ohitura zaharrak konserba ditzagun», oso zabaldua da Lapurdin, lehengo denboretatik:

*Haurrak ikas-azue eskuaraz mintzatzen  
Ongi pilotan eta oneski dantzatzen.*

Bestalde, badakigu noizbait, pilota, artzainen jokoak zan zela, J. M. Barandiaran eta M. Lekuonak eman dizkiguten zenbait agiriri jarraituaz. Oraindik artzaingoak jarraitzen duen lekuetan aurkituko ditugu zenbait toki-izen: Aralarren «Pelota soro» eta Oiartzungo Zaldin inguruan «Pillota soro», adibidez.

Baina hala ere, aitortu behar dugu, lehen dokumentu idatzia 1331-koa dugula, Euskal Herriari dagokionez. Nafarroako erregeak pilotan jokatzeko toki bat egin zutenekoa noski. Fr. Fernando de Mendoza-k Nafarroako artxiboan aurkitu zuen agiri hori. Ikusi bere berri «Euskalerrriaren alde» (1916). Beraz, 1331-an izatera, Ameriketatik ekarria ez, baizik Ameriketara eramana izan behar zuan.

Neronek ere, Eibarko Club Deportivo-ak argitaratzen duen boletinean (diciembre, 1961) eman nuen gai honi buruzko lan bat. Baina periodistak enteratu gabe geldituko dira. Enteratu gabe geldituko diran bezala L. de Ubitarte-k «La Voz de España»-n 1964-ko otsailaren 29-an argitara eman zuenaz

J. S. M.